- . Rhus coriaria, zumaque
- . Juniperus oxycedrus, enebro de la miera
- . Juniperus phoenicea, sabina negra

Artículo 30. Criterios sobre recogida de basuras.

Se estudiará obligatoriamente el sistema comunal de recogida de basuras.

Si éstas se recogen provisionalmente en recintos dentro de las edificaciones, deberá estudiarse el aparcamiento del autocamión para el momento de la recogida sin que sobrepase la distancia de 70 m.

En caso de adoptarse la solución de contenedores fijos en el exterior, éstos deberán estar colocados de manera que no existan con los aparcamientos de superficie completos giros y retornos dificultosos.

31. artikulua. Eraikuntza-elementuen eta kalitate- eta diseinu-irizpideen garapena eta normalizazioa urbanizazio-obretan

Udalak obra edo zerbitzu bakoitzerako Baldintza Teknikoen eta Administrazio eta Ekonomi Baldintzen Agiri Orokorrak idazteko ahalmena izango du, Arau Subsidiario hauetan biltzen direnak garatuz eta zehaztutako gutxieneko diseinu- eta kalitate-irizpideei jarraituz.

Halaber, ahalmena ematen zaio zerbitzu-sareetako elementu ezberdinetarako -besteak beste, luminariak, kutxetak, hustubideak, erregistro-putzuak, pasoko giltzen kutxetak, kanalizazioen sekzio tipoa, e.a.- udaleko eredu normalizatu ofizialak idazteko.

32. artikulua. Egon dagoen urbanizazioari egokitzeko xedapenak.

Egon dauden hiri-instalazioen ezaugarriengatik ezinezkoa denean honen aurreko artikuluetan garatu diren kalitate eta diseinuari buruzko gutxieneko baldintza guztiak betetzea, horren arrazoiak justifikazio zehatza aurkeztuko da eta irtenbide tekniko egokien bidez konponduko dira balizko arazo horiek, baina honen aurreko artikuluan adierazi diren kalitate-maila eraitsi gabe.

3. KAPITULUA KUDEAKETA TRESNAK

33. artikulua. Jarduketa-sistemak

Plangintzaren kudeaketa indarrean dagoen hirigintzako legerian ezarri diren jarduketa-sistematariko baten bidez egin daiteke.

Jarduketa-sistema aukeratzekoan, arau hauetan azaltzen diren xedapenak kontuan hartuta aukeratu du udalak, eta arauak ez badute horri buruz ezer esaten, une horretan dauden baldintzen eta egoeraren arabera egingo du aukera.

34. artikulua. Konpentsazioa.

Legezko jarduketa-sistema honetan helburua da lurzorua beraren jabeen esku uztea poligono edo jarduketa-unitate batean burutu beharreko urbanizazio-lanen kudeaketa eta burutzapena, onurak eta kargak jabeen artean elkartasunez banatuta.

35. artikulua. Lankidetzeta-sistema.

Sistema honetan, jabeek nahitaez laga beharreko lurak ematen dituzte eta Administrazioak haien kargura garatzen ditu urbanizazio-lanak; egikaritzapen-unitatean baneratzeko diren lurak birpartzelatu egiten ditu, betiere, onurak eta kargak behar bezala banatu direla ikusita beharrezkoa ez dela uste denean izan ezik.

36. artikulua. Desjabetze-sistema.

Sistema honen bidez, Administrazioak egikaritzapen-unitate batean baneratzeko diren lur guztiak nahitaez eskuratzen ditu eta, horiek urbanizatu ondoren, merkatura itzultzen ditu; horrela, lurren gehikuntza baloratua irabazten du.

III. TITULUA LURRAREN ERABILERARAKO DIZIPLINA ETA ESKU-HARTZEAK

1. KAPITULUA HIRIGINTZAKO INFORMAZIOA

1. atala Plangintzaren publikitatea

37. artikulua. Zuzeneko kontsulta.

1. Herritarrek, Lezako Udalarekin dituzten harremanetan, honako eskubide hauek dituzte, besteak beste: Arau Subsidiarioei dagoen dokumentazioa eta artikulua honetako 3. atalean aurreikusitako erregistroa kontsulta dezakete.

Kontsulta-eskubideak berarekin dakar baimen bidez aztertutako agiriaren kopia edo ziurtagiria lortzeko eskubidea; eskubide horretaz baliatzeko, aurretik ordenantzan ezarritako exakzioak ordaindu behar dira.

2. Lezako Udalak plangintza-tresnetako bakoitzaren ale osoa jarriko du beren beregi administratuen eskura, kontsulta dezaten.

3. Lezako Udalak "Hirigintzako Plangintza Tresnen Udal Erregistroa" formalizatuko du. Bertan, Plangintzako Arau Subsidiarioak, plan partzialak, plan bereziak, hirigintzako jarduketa-programak, xehetasunezko estudioak, urbanizazio-proiektuak, egikaritzapen-unitateak mugatzeko proiektuak, birpartzelatze-proiektuak eta konpentsazio-proiektuak behin betiko onesteko erabaki guztiak inskribatuko dira, baita agiri horiek guztiak berrikusi eta aldatzeko erabakiak ere.

Aipatutako tresnetan eragina duten administrazio-ebazpenak eta epaiak ere jasoko dira.

Artículo 31. Desarrollo y Normalización de los elementos constructivos y de los criterios de calidad y diseño en las Obras de Urbanización.

El Ayuntamiento queda facultado para redactar los Pliegos Generales de Condiciones Técnicas y Económico-Administrativas de cada obra o servicio, en desarrollo de las contenidas en las presentes Normas Subsidiarias y con respecto a los criterios mínimos de diseño y calidad definidos.

Queda facultado así mismo para redactar los modelos normalizados oficiales del municipio para distintos elementos de las redes de servicios como luminarias, arquetas, sumideros, pozos de registro, arquetas de llaves de paso, sección tipo de canalizaciones, etc.

Artículo 32. Disposiciones de acomodación a la urbanización existente.

Cuando las preexistencias de redes de instalaciones urbanas no permitan cumplir en todos sus aspectos las condiciones mínimas de calidad y diseño desarrollados en los artículos precedentes, se presentará justificación detallada de sus causas y se resolverán los posibles conflictos con soluciones técnicas apropiadas sin rebajar los niveles de calidad indicados en el articulado anterior.

CAPÍTULO 3 INSTRUMENTOS DE GESTIÓN

Artículo 33. Sistemas de Actuación.

La gestión del planeamiento se llevará a cabo por alguno de los sistemas de actuación previstos en la Legislación Urbanística vigente.

El Ayuntamiento elegirá el sistema de actuación atendiendo a las determinaciones que al respecto señalan las presentes Normas y cuando éstas no lo indicasen lo fijará según las condiciones y circunstancias que concurren.

Artículo 34. Sistema de Compensación.

Es aquel de los sistemas legales de actuación que tiene por objeto la gestión y ejecución de la urbanización de un polígono o unidad de actuación por los mismos propietarios del suelo en régimen de solidaridad de beneficios y cargas.

Artículo 35. Sistema de Cooperación.

Es aquel en que los propietarios aportan los terrenos de cesión obligatoria y la Administración ejecuta las obras de urbanización con cargo a los mismos, reparcelando los terrenos comprendidos en la unidad de ejecución salvo que ésta fuere innecesaria por resultar suficientemente equitativa la distribución de los beneficios y cargas.

Artículo 36. Sistema de Expropiación.

Se denomina así el sistema mediante el cual la Administración adquiere forzosamente todos los terrenos comprendidos en una unidad de ejecución, para urbanizarlos y devolverlos luego al mercado, obteniendo la ganancia derivada de su incremento valorado.

TÍTULO III DISCIPLINA E INTERVENCIÓN DEL USO DEL SUELO

CAPÍTULO 1 INFORMACIÓN URBANÍSTICA

Sección 1 Publicidad del Planeamiento

Artículo 37. Consulta Directa.

1. Los ciudadanos en sus relaciones con el Ayuntamiento de Leza tienen, entre otros los siguientes derechos: Acceso a la documentación integrante de las Normas Subsidiarias, de los instrumentos de desarrollo de las Normas y al registro que prevé el apartado 3 de este artículo.

El derecho de acceso conlleva el de obtener copia o certificado de los documentos cuyo examen es autorizado previo pago de las exacciones establecidas en ordenanza.

2. El Ayuntamiento de Leza deberá disponer de un ejemplar completo de cada uno de los instrumentos de planeamiento destinado exclusivamente a la consulta por los administrados.

3. El ayuntamiento de Leza formalizará el "Registro Municipal de instrumentos de planeamiento urbanístico", en el que se inscriban todos los acuerdos de aprobación definitiva de las Normas Subsidiarias de Planeamiento, Planes Parciales, Planes Especiales, Programas de Actuación Urbanística, Estudios de Detalle, Proyectos de Urbanización, Proyectos de Delimitación de Unidades de Ejecución, Proyectos de Reparcelación, Proyectos de Compensación, así como acuerdos de revisión y modificación de los mismos.

Se inscribirán las resoluciones administrativas y sentencias que afecten a los instrumentos inscritos.

Horiez gain, Arau hauetako 41. artikuluan ezartzen diren interpretazio-ebazpenak eta hirigintzako hitzarmenak ere bilduko dira.

38. artikulua. Aurretiatzko kontsultak.

Jardun jakin batek bete behar dituen ezaugarri eta baldintzei buruz argibideak eska daitezke, baimenak eskatu baino lehen. Kontsulta, xedeak horrela eskatzen duenean, ulertzeko modukoak izango diren aurreproiektu eta krokisekin aurkeztuko dira.

39. artikulua. Hirigintzako kontsulten inguruko txostenak.

1. Partikularrek finka, poligono edo sektoreari aplikatu dakiokeen hirigintzako araubidearen inguruko informazioa eska dezakete. Eskaera idatziz egingo da eta Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko da.

2. Txosten-eskaerarekin batera, kontsultaren xede den finka, poligono edo sektorearen kokapen-planoa ekarriko da.

3. Txostena lizentzia-emakidarako espedienteetan txosten tekniko edo juridikoa eman ohi duten teknikarietako edozeinek sinatuta egongo da.

4. Txostenaren berri emango zaio eskatzaileari, ordenantzaren ezarritako exakzioa ordaindu ondoren.

Irteera-erregistroan Lezako Udalean ematen diren txosten guztiak jasoko dira idatziz.

Irteera-erregistroan aipatzen ez den txostena ez dela eman ulertuko du Lezako Udalak.

40. artikulua. Zedula urbanistikoak.

1. Lezako Udalak udal-mugartearen barneratzen diren finketan antzemandako hirigintzako inguruabarren egiaztagiria sortu ahal izango du, dagokion ordenantzaren bidez.

Dokumentu honen izena lursail edo eraikinaren zedula urbanistikoa izango da, kasuan kasuko xedetzat duen finkaren izaeraren arabera, eta Lezako Udalak partzelazioak, eraikuntza edota finken edozein erabileratan eska dezake.

2. Zedula urbanistikoak Hirigintzako Plangintzari buruzko Arautegiaren 168. artikuluko 3. idatz-zatiak zehazten dituen hirigintzako inguruabarrak bilduko ditu.

3. Zedulen balio egiaztatzailea horietan egon daitekeen oker material edo egitatezko okerrak gero zuzentzea gorabehera ulertuko da eta horren ondorioz ez dira sekula aldatuko finkak, une bakoitzean aplikagarria den legezko eta hirigintzako antolamenduaren arabera, dituen eskubideak eta betebeharrak.

41. artikulua. Plangintza interpretatzea dakarten kontsultak.

Hirigintza-txostenetan edo zedula urbanistikoetan beharrezkoa denean plangintzaren alderdi eztabaidagarriak edo kontraesanen dauden alderdiak argitzea, organo eskudunak irizpen arrazoitu bidez ebatziko du interpretazioaren arazoa. Interpretazioari dagozkion ebazpen horiek Arauen eranskin gisa aurkeztuko dira.

42. artikulua. Administrazioaren ondare-erantzukizuna arautzea.

1. Administrazioaren ondare-erantzukizuna, luzatzen dituen txostenen edo zedulen ondorioetarako, administrazio publikoen ondare-erantzukizunari buruzko araudiaren bidez erregulatuko da.

2. Aurrekoa gorabehera, honako lotura-erregimena ezarri da:

a) Udalak emandako txostenak baliozgabeak izango dira, baldin indarrean dagoen araudiaren edo xedapenen kontrakoa badira.

b) Zedula urbanistikoak lotesleak dira Administrazioarentzat eta administratuarentzat, betiere, maila handiagoko arauak ezeztatzen ez badituzte.

c) Zedula urbanistikoak etenda geldituko dira, edo erabat eta berez baliozgabeak izango dira, funtsa ematen dien plangintzarekiko bereiztezin.

d) Txosten teknikoak ez dira lotesleak.

2. atala *Lerrokadura eta sestrak adieraztea*

43. artikulua. Prozedura eta baliozkotasuna.

1. Interesdunek hiri-lurzoruko edozein finkaren lerrokadura eta sestrak Udalarri lurrean bertan adierazteko eskatzeko eskubidea dute; horretarako, 1:500 edo 1:1.000 eskala izango duen planoaren aldakia aurkeztu eta eskubidearen xedea den finka zein den adierazi behar dute.

Se inscribirán también las resoluciones interpretativas a que se refiere el artículo 41 de estas Normas así como los convenios urbanísticos.

Artículo 38. Consultas Previas.

Podrán formularse consultas previas a la petición de licencias, sobre las características y condiciones a que debe ajustarse una actuación determinada. La consulta, cuando así lo requiera su objeto, deberá acompañarse de anteproyectos o croquis suficientes para su comprensión.

Artículo 39. Informes sobre consultas urbanísticas.

1. Los particulares podrán solicitar, siempre por escrito, la información del régimen urbanístico aplicable a una finca, polígono o sector, presentando su solicitud en el Registro General del Ayuntamiento.

2. La solicitud de informe deberá acompañar plano de emplazamiento de la finca, polígono o sector objeto de la consulta.

3. El informe será suscrito por cualesquiera de los técnicos que emiten informe técnico o jurídico en expedientes de concesión de licencia.

4. El informe será comunicado al solicitante previo pago de la exacción establecida en ordenanza.

En el registro de salida se anotarán todos los informes que se emitan por el Ayuntamiento de Leza.

El informe no anotado en el registro de salida se entenderá no emitido por el Ayuntamiento de Leza.

Artículo 40. Cédulas Urbanísticas.

1. El Ayuntamiento de Leza podrá crear, en la correspondiente Ordenanza, un documento acreditativo de las circunstancias urbanísticas que concurren en las fincas comprendidas en el término municipal.

Este documento se denominará cédula urbanística de terreno o de edificio, según el carácter de la finca a que se refiere, y el Ayuntamiento de Leza podrá exigirlo para la parcelación, edificación o cualquier utilización de los predios.

2. La cédula urbanística contendrá las circunstancias urbanísticas que especifica el apartado 3 del artículo 168 del Reglamento de Planeamiento Urbanístico.

3. El valor acreditativo de las Cédulas se entenderá sin perjuicio de la ulterior subsanación de los errores materiales o de hecho que contuviesen y no alcanza en ningún caso a alterar los derechos y obligaciones que recaigan sobre la finca en virtud de la ordenación legal y urbanística aplicable en cada momento.

Artículo 41. Consultas que requieran interpretación del Planeamiento.

Cuando los Informes o Cédulas urbanísticas entrañen la resolución de cuestiones litigiosas o contradictorias del planeamiento, el Órgano competente resolverá la cuestión interpretativa mediante dictamen motivado. Dichas resoluciones interpretativas se incorporarán como anexos a las Normas.

Artículo 42. Regulación de la responsabilidad patrimonial de la Administración.

1. La responsabilidad patrimonial de la administración a los efectos de emisión de informes o cédulas se regulará por la Normativa Reguladora de la responsabilidad patrimonial de las Administraciones Públicas.

2. Al margen de lo anterior se establece el siguiente régimen de vinculación:

a) Los informes emitidos por el Ayuntamiento serán nulos si contradicen cualquier norma o determinación vigente.

b) Las cédulas urbanísticas tienen carácter vinculante para la Administración y el administrado, siempre que no contradigan normas de rango superior.

c) Las cédulas urbanísticas quedarán en suspenso o serán nulas de pleno derecho en forma indisoluble con el planeamiento que les preste su base.

d) Los informes técnicos no tienen carácter vinculante.

Sección 2 Señalamiento de Alineaciones y Rasantes.

Artículo 43. Procedimiento y Validez.

1. Los interesados podrán solicitar del Ayuntamiento el señalamiento sobre el terreno de alineación y rasantes sobre cualquier finca de suelo urbano para lo que aportarán copia del parcelario municipal a escala 1/500 o 1/1.000 con indicación de la finca objeto de solicitud.

2. Kasuan kasuko eskubideak ordaindu ondoren, interesdunari egun eta ordu jakinak emango zaizkio lerrokadura edo sestra egin beharreko lekura joateko; lerrokadura edo sestra hori udaleko teknikariak egingo du, prozeduren katalogoak adierazitako epean. Lerrokadurak eta sestrak ezarri ondoren, udal-teknikariak eta jabeak berak izendatutako teknikariak sinatuko duten akta izenpetuko da.

3. Lerrokadurek sei hilabeteko baliozkotasuna edukiko dute, egi-ten diren egunetik zenbatzen hasita; epe hori igaro ondoren, eraikitze-ko lizentzia eskatu ez bada, iraungita geratuko dira.

2. KAPITULUA HIRIGINTZA-LIZENTZIAK

1. atala Xedapen orokorrak.

44. artikulua. Lizentzia behar duten lanak.

Lizentzia eskatu beharko da honako ekintza hauek burutzeko:

1. Urbanizazio-obra egiteko.
2. Hiri-zerbitzuak ezartzeko edo lehen zeudenak aldatzeko.
3. Oin berriko obrak egiteko.
4. Eraberritze- edo zabaltze-obra egiteko.
5. Kontserbazio-, konponketa- edo hobekuntza-lanak burutzeko.
6. Eraikuntzak eraisteko.
7. Lurrak partzelatzeko edo lehengoratzeko.
8. Lur-mugimenduak egiteko, besteak beste, lur-erazketak, lurberdinketak, lur-indusketak eta betelanak.
9. Betelanak egiteko edo obra-hondakinak biltegitratzeko.
10. Meatzeak eta harrobiak ustiatzeko.
11. Zuhaitzak mozteko.
12. Eraikin eta instalazioak lehenengoz okupatzeko.
13. Obrak txikiak egiteko.
14. Bide publikotik ikusteko moduan egongo diren markesinak, norma-irudiak, iragarkiak, plakak edo kartelak eta farolak jartzeko.
15. Lur eta orubeen inguruan itxitura edo hesia jartzeko.
16. Merkataritzako edo industriako establezimenduak eta biltegiak instalatu, ireki, aldatu, zabaldu edo transformatzeko, eta makinak, motoreak eta gainerako industria-elementuak aldatu, ordeztu edo lekuz aldatzeko, lizentziaren baldintzetan aldaketaren bat egon badaiteke.
17. Garabiak eta eraikuntzetako beste laguntza-bitarteko baztuz instalatu eta abiarazteko.
18. Erabilera publikoko ondasunak modu arrunt, berezi eta normalean erabiltzeko.
19. Lurretan behin-behineko erabilera eta obra justifikatuak garatzeko. Obra horiek eraitsi egingo dira Udalak hala erabakiz gero eta inolako kalte-ordainik eman beharrik izan gabe, Hirigintza Diziplinari buruzko Arautegiaren 1.6 artikuluan ezarritakoaren arabera.

20. Antolamendu-tresnetan adierazitako beste edozein ekintza burutzeko.

Hirigintzako lizentzia eskatu beharra bai pertsoneri bai erakunde pribatuei aplikatzen zaie, eta baita Udala ez diren gainerako administrazio publikoei ere, nahiz eta burutu beharreko jardunek jabari edo ondare publikoko lurretan eragina izan; nolana ere, premiazko administrazio-jardunak edo aparteko interes publikoak direnean, aurreikusitako prozedura bereziak aplikatu ahal izango dira.

45. artikulua. Lizentziaren eragin-eremua eta edukia.

1. Lizentziak hirugarrenek dituzten eskubideei kalterik egin gabe emango dira, jabetza-eskubideari izan ezik, eta partikularrek ezingo dituzte lizentzia horiek eskatu burutzen dituzten jardueren ondorioz sortutako erantzukizun zibil edo penala ekidin edo murrizteko.

2. Obra, instalazio edo zerbitzuren baten ezaugarriekin zerikusia duten lizentziak eskualdatu ahal izango dira, baina jardueraren aurreko titularrak eta titular berriak eskualdaketaren berri eman beharko diote Udalari idatzi baten bidez. Bestela, horrela ez egiteak lehenengorari ekarriko dizkion erantzukizun guztiei loturik geldituko dira bai bata eta bai bestea.

3. Subjektu baten gaitasunekin edo jabari publikoko ondasunen gainean burutu beharreko jarduerekin erlazioatutako lizentziak oro har

2. Una vez satisfecho el pago de los derechos correspondientes se requerirá al interesado en día y hora para que se presente en el lugar objeto de alineación o rasante que será practicada por el correspondiente técnico municipal en el plazo que indique el catálogo de procedimientos. Del resultado del señalamiento de alineaciones y rasantes se suscribirá acta firmada por técnico municipal y por técnico designado por la propiedad.

3. Las alineaciones tendrán un plazo de validez de seis meses, contados a partir de la fecha en que fueron practicadas, transcurrido el cual sin haber sido solicitada la licencia de construcción, quedarán caducadas.

CAPÍTULO 2 LICENCIAS URBANÍSTICAS

Sección 1 Disposiciones Generales.

Artículo 44. Actos sujetos a Licencia.

Estarán sujetos a previa licencia los siguientes actos:

1. Obras de urbanización.
2. Establecimiento de servicios urbanos o modificación de los existentes.
3. Obras de nueva planta.
4. Obras de reforma o ampliación.
5. Obras de conservación, reparación o mejora.
6. Demolición de construcciones.
7. Parcelación o reparación de terrenos.
8. Movimiento de tierras como desmontes, explanación, excavación y terraplenado.
9. Relleno o depósito de escombros.
10. Explotación de minas y canteras.
11. Tala de árboles.
12. La primera utilización en ocupación de los edificios e instalaciones.
13. Obras menores.
14. Colocación de marquesinas, carteles, anuncios, placas o letreros y farolas visibles desde la vía pública.
15. Cerramiento o cercado de terrenos y solares.
16. Instalación, apertura, modificación, ampliación o transformación de establecimientos comerciales o industriales y almacenes, así como la modificación, sustitución o cambio de lugar de máquinas, motores y demás elementos industriales, cuando pueda suponer variación de los supuestos de la licencia.
17. Instalación y funcionamiento de grúas y otros medios auxiliares de las construcciones.
18. Uso común, especial y normal de los bienes de uso público.

19. Usos y obras justificadas de carácter provisional sobre terrenos, que habrán de demolerse cuando lo acordase el Ayuntamiento sin derecho a indemnización, según lo establecido en el artículo 1.6 del Reglamento de Disciplina Urbanística.

20. Cualesquiera actos de los señalados en los Instrumentos de Ordenación.

La sujeción a licencia urbanística rige sin excepción para personas y entidades privadas, y para las Administraciones Públicas distintas del Ayuntamiento, aún cuando las actuaciones sujetas afecten a terrenos pertenecientes al dominio o patrimonio público, sin perjuicio de aplicar los procedimientos especiales previstos cuando se trate de actuaciones administrativas urgentes o de excepcional interés público.

Artículo 45. Alcance y contenido de la Licencia.

1. Las licencias se entenderán otorgadas, salvo el derecho de propiedad, sin perjuicio del derecho de terceros, y no podrán ser invocadas por los particulares para excluir o disminuir la responsabilidad civil o penal en que incurran en el ejercicio de las actividades correspondientes.

2. Las licencias relativas a las condiciones de una obra, instalación o servicio, serán transmisibles, pero el antiguo y nuevo titular de la actividad habrán de comunicar dicha transmisión por escrito al Ayuntamiento, sin lo cual quedarán ambos sujetos a todas las responsabilidades que se deriven para el primero de ellos.

3. Las licencias concernientes a las cualidades de un sujeto o al ejercicio de actividades sobre bienes de dominio público, no serán

ezingo dira eskualdatu. Hala ere, kasu berezietan, eta Udalak beren beregi baimena eman ondoren, eskualdatu egin ahal izango dira.

Lizentzia behar duten egintzak Estatuko organoek edo zuzenbide publikoko erakundeek sustatzen dituztenean, egoki den espediente izapidetuko da, indarreko Hirigintzako Araudian aurreikusitakoarekin bat etorritz.

4. Lizentziak indarreko legerian, ordenantza hauetan eta emakida-egintzak adierazten dituenetan ezarritako baldintza orokorre jarraiki eta plangintzak, lurzoru-mota, lurzoruaren xedea eta eraikigarritasun- eta erabilera-baldintzak aintzat hartuta, definitzen dituen baldintza inplizituekin bat etorritz emango dira.

5. Lizentzia eman edo ukatzen duen ebazpen oro arrazoitua izango da.

6. Baimena emateko espediente guztietan txosten teknikoa eta lege-txostena sartu behar izango dira.

7. Inoiz ez dira administrazioaren isiltasunez eskuratuko indarreko legeriaren eta Arau hauen edota lurzorua eta eraikuntzak erabiltzeari buruzko arau eta ordenantzen aurka dagoen ahalmenik.

8. Nolanahi ere, lizentzia emateak ez du esan nahi Udalari dagokionik garatzen diren jardueren ondorioz sor litezkeen kalte edo galerengatik erantzukizunik.

9. Obra-lizentzia izateak ez du esan nahi indarreko legeriari jarraiki eska daitekeen beste edozein lizentzia edo baimen, nola orokorra hala udalekoa, lor ezin daitekeenik.

46. artikulua. Lizentziak emateko prozedura.

Lizentziak emateko prozedura toki-araubideari buruzko indarreko legeriak ezarri duena da.

47. artikulua. Lizentzia-eskaera.

1. Eskaera dagokion inprimaki ofizialaren bidez egingo da. Alkatetzari zuzenduta egongo da eta interesdunak edo horren ordezkari denak sinatuta. Bertan, honako alderdi hauei buruzko datuak jasoko dira: eskatzailearen nortasuna eta helbidea, eta finkaren nahiz lizentzia eskatzeko xede den jarduera, obra edo instalazioaren egoera eta inguruabarrak.

Eskabidearekin batera, eta lizentziaren izaera aintzat hartuta, hurrengo artikuluetan zehazten diren agiriak aurkeztuko dira.

2. Lizentzia-eskabidearekin batera aurkezten diren agiria aztertu eta ongitu daitezkeen gabeziak daudela antzematen bada, eragozpenen orria formulatuko da eta interesdunari horren berri emango zaio. 10 eguneko epean, edo prozeduren katalogoan aipatzen den epean, ez badira aipatutako gabeziak ongitu, hasieran aurkeztutako lizentzia-eskaerari uko egiten zaiola ulertuko da.

48. artikulua. Hasiera eta iraungipena.

1. Lizentziak baimendutako jarduerak emakida-egintza jakinarazi ondorengo sei hilabeteen barruan hasiko dira –obrak beste epe ezberdin batean hasiko direla beren beregi adierazi ezean– eta ezinongo dira sei hilabete baino gehiagotan zehar etenda egon. Epe horiek Administrazio Prozedura Erkidearen legeriak ezarritako araubidearekin bat etorritz luzatu ahal izango dira.

Udalak lizentziaren bidez baimendutako jarduera amaitzeko epea ezarriko du emakida-ekintzan, sustatzaileak aurkeztutako lizentzia-eskabidean jasotzen diren obra eta proposamenaren konplexutasuna aintzat hartuta.

Hasteko, eteteko edo amaitzeko epe horiek igaro ondoren, eta, hala badagokio, luzapenak bukatuta, lizentziak iraungita geratuko dira, espedientearen instrukzioa eta deklarazioa egin ostean.

2. Ezingo dira luzapenak eman lizentzia emateko uanean indarrean zegoen Hirigintza Araubidea aldatu bada edo, dagokion sektorean, lizentziak emateko egintza bertan behera uzteko erabakia hartu bada.

2. atala Obra-lizentziei buruzko xedapen espezifikokoak.

49. artikulua. Sailkapena.

Eraikuntza-obretarako lizentziak honako kategoria hauetan sailkatzen dira:

a) Oin berriko obretarako lizentziak.

b) Eraberritze-obretarako lizentziak.

Honako hauek halakotzat joko dira:

transmisibles como regla general. En supuestos especiales, previa expresa autorización del Ayuntamiento, podrán transmitirse.

Cuando los actos sujetos a previa licencia sean promovidos por órganos del Estado o entidades de derecho público, se tramitará el expediente oportuno, conforme a lo previsto en la Normativa Urbanística vigente.

4. Las licencias se entenderán otorgadas con arreglo a las condiciones generales establecidas en la legislación vigente, en las presentes ordenanzas y en las expresadas en el acto de otorgamiento, así como a las implícitas definidas por el planeamiento, según la clase y destino del suelo y las condiciones de edificabilidad y uso.

5. Toda resolución que otorgue o deniegue una licencia deberá ser motivada.

6. En todo expediente de concesión de licencia constará informe técnico y jurídico.

7. En ningún caso se entenderán adquiridas por silencio administrativo facultades en contra de la legislación urbanística vigente y de las presentes Normas o de las Normas y Ordenanzas reguladoras sobre uso del Suelo y Edificación.

8. En todo caso, el otorgamiento de licencia no implicará, para el Ayuntamiento, responsabilidad alguna por los daños o perjuicios que puedan producirse con motivo u ocasión de actividades que se realicen en virtud de las mismas.

9. La licencia de obras no exime de la obtención de cualquier otra licencia o autorización exigible por la legislación vigente de carácter general o municipal.

Artículo 46. Procedimiento de otorgar de Licencias.

El procedimiento de otorgar licencias es el establecido en la legislación vigente de régimen local.

Artículo 47. Solicitud de Licencia.

1. La solicitud se formulará en el impreso Oficial correspondiente dirigido a la Alcaldía y suscrito por el interesado o por persona que le represente, con los datos acreditativos de la personalidad y domicilio del solicitante y la situación y circunstancias de la finca, así como de la actividad, obra o instalación para la que se solicite licencia.

Con la solicitud se acompañarán los documentos que, según la naturaleza de la licencia, se determinen en los artículos siguientes.

2. Si del examen de la documentación que se acompaña a la solicitud de licencia se deduce la existencia de deficiencias subsanables, se procederá a formular la hoja de reparos correspondiente que se comunicará al interesado. Si en el plazo de 10 días o plazo que señale el catálogo de procedimientos no se subsanan las deficiencias apuntadas, se entenderá que se renuncia a la solicitud de licencia formulada inicialmente.

Artículo 48. Iniciación y caducidad.

1. Las actividades autorizadas por la licencia deberán iniciarse dentro de los seis meses siguientes a la notificación del acto de otorgamiento, salvo que se condicione expresamente el comienzo de las obras en un plazo diferente y no podrán suspenderse por plazo superior a seis meses. Dichos plazos podrán prorrogarse con arreglo al régimen establecido por la legislación del Procedimiento Administrativo común.

El Ayuntamiento señalará en el acto de otorgamiento un plazo para la terminación de la actividad autorizada por la licencia, en función de la complejidad de la obra y de la propuesta contenida en la solicitud de licencia por el promotor.

Transcurridos los plazos de iniciación, suspensión o terminación y, en su caso, las prórrogas, las licencias quedarán caducadas, previa instrucción de expediente y declaración al efecto.

2. No podrán concederse prórrogas si se hubiera modificado el Régimen Urbanístico vigente en el momento del otorgamiento de la licencia o se hubiera acordado en el sector de que se trate la suspensión de otorgamiento de licencias.

Sección 2 Disposiciones específicas sobre Licencias de Obras.

Artículo 49. Clasificación.

Las licencias de obras de edificación se clasifican en las siguientes categorías:

a) Licencias para obras de nueva planta.

b) Licencias para obras de reforma.

Se conceptuarán como tales:

1. Eraikuntzen egitura eta kanpo-itxura eraberritu, zabaldu eta aldatzeko obrak, betiere, obra txikiak ez badira.

2. Zerbitzuak, sukaldeak, eskailerak, hodiak, e.a. eraikitzea edo instalatzea, horien bidez eraikineko elementu komunak aldatzen badituzte.

3. Ilogailuak eta karga-jasogailuak instalatzea edo aldatzea.

4. Eraikuntzen xedea nabarmen aldatzen duten edo etxebizitzakopurua gehitu edo murrizten duten trenkada-lanak.

5. Hasieran obra txikitat hartu arren, areagotu edo gehitu egin diren lanak, Udalaren ustez beharrezkoa denean horiek eraberritze- edo oin berriko obratzat hartzea; halaber, eraikuntza berean metatu edo ondoz ondo egiten diren lanak.

c) Obra txikietarako lizentziak.

Obra txikitat hartuko dira aurreko idatz-zatietan barneratzen ez diren lanak eta, bereziki, honako hauek:

1. Ikus-onetsitako proiektua eta zuzendaritza fakultatiboa behar duten obrak:

- Erakusketa eta salmentarako barrakoi eta kioskoak egitea.

- Dendarako markesina instalatzea.

- Putzuak eta hobi septikoak egitea. (Proiektuaren ordez sistema homologatuak onartzen dira).

2. Zuzendaritza fakultatiboa behar duten obrak:

- Obren inguruan euspen-hesiak jartzea.

- Eraikuntza-obretako zubiak, aldamiok edo antzekoak egitea.

- Laginketak, putzuak eta esplorazio-bideak egitea.

- Fatxadak ukondotzea.

- Balkoiak, mentsulak eta elementu irtenak aldatzea.

- Solairu bakarra eta 4 m baino gutxiagoko garaiera duten eraikinak edo solairu bakarreko eraikin exentuoak eraistea.

3. Zuzendaritza fakultatiboa behar ez duten obrak:

- Errotuluak, banderak eta argi-iragarkiak jartzea.

- Iragarkiak jartzea, eraikinen estalkien gainena daudenak izan ezik.

- Zutoinak jartzea.

- Toldoak jartzea.

- Espaloietan ibiak egin, konpondu eta kentzea.

- Bide publikoa behin-behinean okupatzea.

- Berdinketa-lanak egitea, betiere, horien ondorioz lurraren kota naturalak ez badira 1 m baino gehiago aldatzen, eta bide edo ibilgu publikoan eraginik ez badute.

- Obra-barrakoiak egin edo instalatzea.

- Estalkiak eta zabaltzak konpontzea.

- Interes historiko edo artistikoko katalogoetan barneratzen ez diren edo ordenantza berezirik ez duten eraikinen fatxadak pintatu, iztuku eta konpontzea.

- Irekiduretan atea eta pertsianak jartzea.

- Berdin hesiak jartzea.

- Instalazioetako hodiak, hustubideak eta kandolak egin, konpondu edo ordeztzea.

- Solairu bakarra eta 50 m² baino gutxiagoko azalera duten behin-behineko eremu estaliak eraistea.

- Bide publikora ematen ez duten patio eta mehelinak pintatzea, aldamiok behar ez denean.

- Gelak, eskailerak eta ezkaratzak zuritu, paperezatu eta iztukatzea.

- Zoladurak konpondu eta ordeztzea.

- Trenkadak eta mostradoreak eraitsi eta egitea.

- Igeltsuak eta xaflak jartzea.

Obra txikiak egiteko lizentzia-eskabideak izapidetu ahal izateko, beharrezkoa da obrak eta horien norainokoa eta egoera idatziz edo grafikoki deskribatzen dituen agiria aurkeztea, baita obra horien aurrekontua ere.

Proiektua edo zuzendaritza beharrezkoa bada, bidezko agiriak ekarriko dira, fakultatibo eskudunak sinatuta eta kasuan kasuko lanbide-elkargoek ikus-onetsita, eta haiekin batera, baita zuzendaritza eskatzeko orria ere, lanbide-elkargo egokiek ikus-onetsia. (Zuzendaritza-gutuna).

1. Las obras de reforma, ampliación y modificación de estructura y aspecto exterior de las edificaciones, siempre que no sean obras de las enumeradas como menores.

2. Construcción o instalación de servicios, cocinas, escaleras, conductos, etc., en tanto modifiquen elementos comunes del edificio.

3. Instalación o modificación de ascensores y montacargas.

4. Las obras de tabiquería por las que se varíe sustancialmente el destino de las edificaciones o se modifique el número de viviendas.

5. Las obras, inicialmente consideradas como menores, pero cuya intensidad o escala hagan aconsejable, a juicio del Ayuntamiento, su concepto como obras de reforma o nueva planta, o las obras menores acumuladas o sucesivas sobre una misma edificación.

c) Licencias para obras menores.

Se califican como obras menores las que no resulten incluidas en los apartados anteriores y especialmente las siguientes:

1. Obras que requieren proyecto visado y dirección facultativa:

- Construcciones de barracones y quioscos para exposición y venta.

- Instalación de marquesinas para comercio.

- Construcción de pozos y fosas sépticas. (Se admiten sistemas homologados en sustitución de proyecto).

2. Obras que requieren dirección facultativa:

- Establecimiento de vallas o cercas de precaución de obras.

- Construcción de puentes, andamios y similares para obras de construcción.

- Ejecución de catas, pozos y senderos de exploración.

- Acodalamiento de fachadas.

- Modificación de balcones, repisas, elementos salientes.

- Demolición de edificios de una planta y con altura inferior a 4 m. o exentos de una sola planta.

3. Obras que no requieren dirección facultativa:

- Colocación de rótulos, banderas y anuncios luminosos.

- Colocación de anuncios, excepto los situados sobre la cubierta de los edificios.

- Colocación de postes.

- Colocación de toldos.

- Construcción, reparación y supresión de vados en las aceras.

- Ocupación provisional de la vía pública.

- Trabajos de nivelación que no alteren en más de 1 m. las cotas naturales del terreno, cuando no afecten a vías o cauces públicos.

- Construcción o instalación de barracones de obra.

- Reparación de cubiertas y azoteas.

- Pintura, estuco y reparación de fachadas de edificios no incluidos en catálogos de interés histórico artístico o sin ordenanza especial.

- Colocación de puertas y persianas en aberturas.

- Colocación de rejas.

- Construcción, reparación o sustitución de tuberías de instalaciones, desagües y albañales.

- Derribo de cubiertos provisionales de una planta y de menos de 50 m² de superficie.

- Pintura de patios y medianeras que no den a la vía pública y no precisen andamio.

- Blanqueo, empapelado, pintura y estuco de habitaciones, escaleras y portales.

- Reparación y sustitución de solados.

- Demolición y construcción de tabiques y mostradores.

- Colocación de escayolas y chapados.

Las solicitudes de licencia de obras menores requieren para su tramitación ir acompañadas de un documento en el que se describan escrita o gráficamente las obras con indicación de su extensión y situación, así como un presupuesto de las mismas.

En los supuestos en que se exija proyecto o dirección, se presentarán los correspondientes documentos firmados por facultativo competente y visados por los colegios profesionales respectivos y la hoja de encargo de dirección visada por los correspondientes colegios profesionales. (Carta de dirección).

50. artikulua. Obra-lizentziari dagokion dokumentazioa.

1. Aurkeztutako proiektuarekin bat etorri, higiezina ezaugarri zehaztutako establezimenduak jartzeko baino erabiltzen ez denean, ez da obra-lizentziarik emango aurretik jarduera-lizentzia aurkeztu ezean.

2. Oin berriko eraikinak egiteko edo lehendik zeuden eraikinetan zabaltze- edo eraberritze-lanak garatzeko lizentzia-eskabidearekin batera, honako agiriok aurkeztuko dira:

a) Ikus-onetsitako proiektu teknikoaren hiru ale, etxebizitzaren administrazioak eskatutako galdesortez gain. Agiri horiek beste organismo batzuetan ere izapidetu behar izanez gero, ale gehiago eskatuko dira.

b) Zuzendaritza fakultatiboen ofizioak, behar bezala ikus-onesiak.

c) Bidezkoa denean, patioen mankomunitateko eskritura, Jabetzaren Erregistroan inskribatua. Finkak jabe berarenak badira, patio-mankomunitatearen elkarrekiko zortasuna ezarri dela egiaztatuko da. Zortasun hori utziezina eta saihestezina izango da finka horietakoren bat zutik dagoen bitartean, eta horietako edozein besterentzeko baldintza etenarazleari lotuta dago.

d) Obra burutzeko epearen aurreikuspenak.

e) Fidantza- edo abala-ordezkatagiriaren egiaztatzea.

3. Aurreko idatz-zatian aipatzen den proiektuak honako agiri hauek barne hartuko ditu:

a) Planoetan grafikoki irudikatu ez diren datuak deskribatu eta adierazten dituen memoria. Gainera, eraikinean industria-jarduerak burutu behar izanez gero, jarduera horien ezaugarriak eta egoera adieraziko dira. Era berean, aplikagarria den antolamendua betetzen dela frogatze aldera, besteak beste, honako ezaugarri hauei buruzko laburpena egingo da: ezarritako azalera eta bolumena, etxebizitza-kopurua, erlaitzaren garaiera, balkoietako eta bestelako hegalkinak, patioen dimentsioak eta bukaerako aurrekontua, emaitzazko balorazio-moduluaren arbera banatua.

b) Kokapen-planoak, gutxienez 1:1.000 eskalan. Plano horiek indarreko araudian ezartzen diren alderdiak adieraziko dituzte: zimentua, saneamendua, solairu ezberdinak, eraikina definitzeko beharrezko sekzioak, fatxada bakoitzari dagokion altxaera, eta estalkiak eta egiturak 1:100 gutxienezko eskalan (etxebizitzetako dagokienez, oinplanoak gutxienez 1:50 eskalan egingo dira; instalazioak ere adieraziko dira, gutxienez 1:100 eskalan).

Dagokion kale-fronteari buruzko informazio grafikoa barneratuko da eta bertan, zuhaitzak, zerbitzuak eta hiri-altzariak adieraziko dira.

c) Baldintza-agiria eta aurrekontua.

d) "Hirigintzako justifikazioa" izeneko idatz-zatia. Indarrean dagoen hirigintzako araudia eta aurkeztutako proiektua alderatzeko analisia.

e) Indarreko xedapenetan ezartzen diren bestelako agiriak.

4. Aurkeztutako proiektu teknikoarekin bat etorri, eraikuntza etxebizitzetarako erabiltzen bada, lizentzia izan arren, ezingo zaie lanei ekin, aurretik ez bada etxebizitzaren arloko administrazio eskudunak egindako bizigarritasunari buruzko aldeko txostena ekartzen.

5. Oinarrizko proiekturako nahikoak diren agiriak bakarrik ere aurkeztu ahal izango dira. Hala eginez gero, eta lizentzia izan arren, ezingo zaie lanei ekin, aurretik ez bada obra osoaren edo horri dagokion fase ezberdinen burutzapen-proiektua aurkeztu eta onesten.

6. Eraberritze- edo zabaltze-lanetarako lizentzietan dagokienez, oin berriko lanetarako lizentzia eskatzeko eta eraberritze edo zabaltze hori egiteko beharrezko agiriak aurkeztuko dira. Bestalde, egungo egoera argi eta garbi definituko da, oinplanoa, sekzioak eta altxaerak zehaztuta _kasu honetan, altxaeren ordez, argazkia erantsi da_; halaber, eraberritu edo zabaldutako lokalak zein erabilera edo jarduera barne hartuko duen zehaztuko da.

51. artikulua. Aldaketak.

Lizentziak baimendutako obrak funtsezko alderdiei dagokienez proiektu teknikoari hertsiki jarraituz burutuko dira (funtsezko alderdiak hartuko dira memoriaren laburpen-eranskinean jasotakoak), nahiz eta zenbait xehetasun-aldaketa egin ahal izango diren unean uneko beharretara egokitzeko, betiere, aldaketa horiek ez dituzten ordenantzak urratzen. Obrak garatu bitartean egiten diren aldaketa guztiak amaieran aurkeztu beharrezko agiritan jasoko dira, obraren aurrekontu errealekin batera, behar bezala ikus-onesi ondoren.

Artículo 50. Documentación de la Licencia de Obras.

1. Cuando con arreglo al Proyecto presentado, la edificación del inmueble se destine específicamente a establecimientos de características determinadas, no se concederá licencia de obras sin la previa licencia de actividad.

2. Con la solicitud de licencia de obras de nueva planta, ampliación o reforma de edificios existentes, se acompañarán los siguientes documentos:

a) Tres ejemplares del proyecto técnico visado, acompañado de los cuestionarios exigidos por la Administración de vivienda. Si la tramitación ante otros organismos lo exige se pedirá mayor número de ejemplares.

b) Oficios de direcciones facultativas debidamente visados.

c) Cuando proceda, Escritura de mancomunidad de patios, inscrita en el Registro de la Propiedad. Si las fincas fueran de un mismo propietario deberá acreditarse la constitución de una servidumbre recíproca de mancomunidad de patio, irrenunciable e irremediable por mientras esté edificada alguna de las fincas, sujeta a la condición suspensiva de que se enajene cualquiera de ellas.

d) Previsiones de plazo de ejecución de la obra.

e) Documento acreditativo del resguardo de fianza o aval.

3. El proyecto al que se refiere el apartado anterior contendrá los siguientes documentos:

a) Memoria en la que se describan e indiquen los datos no representados gráficamente en los planos. Además, cuando en el edificio hubieran de ejercerse actividades industriales, deberán consignarse las características y situación de las mismas. Igualmente incluirá un resumen de características relativas a la superficie y volumen fijados, números de viviendas, altura de cornisa, vuelos de balcones y voladizos, dimensiones de los patios, presupuesto final y descompuesto según los módulos de valoración resultantes, ... a efectos demostrativos del cumplimiento de la Ordenación aplicable.

b) Planos de emplazamiento, a escala mínima 1/1.000 referentes a los planos de la Normativa vigente, de cimentación, saneamiento, de las distintas plantas, secciones necesarias para la definición del edificio, alzados correspondientes a cada fachada, planta de cubiertas y de estructuras, todos ellos a escala mínima 1/100, siendo las plantas en el caso de viviendas a escala mínima 1/50, y planos de instalaciones a escala mínima 1/100.

Deberá incluirse información gráfica del frente de calle correspondiente, con ubicación de arbolado, servicios y mobiliario urbano.

c) Pliego de condiciones y presupuesto.

d) Apartado denominado: "Justificación urbanística". Análisis comparado entre normativa urbanística vigente y el proyecto presentado.

e) Los demás documentos exigidos por disposiciones vigentes.

4. Cuando con arreglo al proyecto técnico presentado, la edificación se destine a vivienda, la licencia no amparará el inicio de las obras sin que previamente se aporte el informe favorable de habitabilidad emitido por la Administración competente en materia de vivienda.

5. Podrá limitarse la documentación precisa a la exigida para un proyecto básico, en cuyo caso la licencia no amparará la iniciación de la obra sin que previamente se presente y apruebe el proyecto de ejecución referido a la totalidad de las obras o a las distintas fases en que se vaya ejecutando.

6. Para las licencias de obras de reforma o de ampliación, deberán presentarse los documentos correspondientes a obras de nueva planta y que sean precisos para la reforma o ampliación que se pretende. Por otra parte, se definirá perfectamente el estado actual mediante plantas, secciones y alzados (se admite fotografía en sustitución de los alzados), así como el uso o actividad a que va a destinarse el local reformado o ampliado.

Artículo 51. Modificaciones.

Las obras autorizadas por la licencia se ejecutarán con estricta sujeción al proyecto técnico en los extremos fundamentales, entendiéndose como tales los comprendidos en el anexo resumen de la memoria, permitiéndose variaciones de detalle que sin contravenir ordenanzas se adapten a las necesidades del momento y sin perjuicio de que en la documentación a presentar a la terminación de las obras se constaten todas las variaciones que se hayan efectuado durante el transcurso de la misma, así como el presupuesto real de las obras ejecutadas, que deberá ser debidamente visado.

52. artikulua. Obra-lizentzia eman aurretik edo ematearekin batera bete beharreko baldintzak: lagapena, berdinbanaketa eta urbanizazioa.

1. Lagatzeko, berdinbanatzeko edo urbanizatzeko betebeharra bete behar den lurri dagokionez, obra-lizentzia honako baldintza hauei jarraiki eskatuko da:

a) Lagapenari dagokionez, ezingo da lur horietan eraikitze lizentzia lortu Administrazioa lurren titular izatera heldu arte; horretarako, lagapen-akta sinatuko dute erregistroko titularrak eta udaleko ordezkariak.

b) Berdinbanaketa egitea beharrezkoa den egikaritzapen-unitateetan, ezingo da eraikitze lizentzia eman, harik eta birpartzelatze- edo konpentsazio-proiektua onesteko egintza administrazio-bidean irrimo bihurtu arte.

Arazo hori dagoen zonetan, hasiera batean ez badira egikaritzapen-unitateetan barneratu, beste unitate bat mugatu ahal izango da edo lur-eremua beste unitate batzuetan barneratu; hala ere, honek ez du plangintza aldatu beharra ekarriko. Behin unitatea mugatu ondoren, ezingo da lizentzia eman aurreko paragrafoan adierazitako baldintza bete arte.

c) Orubetat hartzen ez diren partzelak urbanizatzeko lanak eraikitze lizentzia eskatu aurretik egingo dira.

Administrazioak tarte jakin horri buruzko proiektua eginda balu, lanak proiektu horretan aurreikusitakoari lotuta egingo dira.

Udal-proiekturik ez badago, eraikuntza-proiektuarekin batera urbanizazio-proiektua ekarriko da. Proiektu horrek mota horretako proiektuetarako ezartzen diren zehaztasun- eta diseinu-baldintzak beteko ditu eta bertan jasotzen diren zehaztasunak udal-arauetara egokituko dira.

d) Halaber, urbanizazio-lanak eraikuntzako obra bera aldi berean egin daitezke. Kasu honetan, Hirigintzako Kudeaketaren Erregelamenduko 40. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, Administrazioak lizentzia emango du urbanizazio-lanen egoera aintzat hartuta, aurreikusi badaiteke eraikuntza-lanak amaitu eta partzelak orubetat hartu ahal izateko beharrezko zerbitzu guztiak izango dituela. Nahi izanez gero, eraikuntzako proiektuarekin zerikusirik ez duen urbanizazio-proiektua aurkeztu ahal izango da, haren aurretik edo aldi berean.

Lehenengoz okupatzeko lizentzia eman aurretik, ezinbestekoa da aipatutako urbanizazio-proiektuekin bat etorriz egin behar izan diren urbanizazio-lanak onartzea; horretarako, aurreko idatz-zatian ezarritako baldintza eta ziurtagiri berdinak betetzea eta konpainia hornitzaileen atxikimendua lortzea eskatuko da.

Urbanizazio-lanak onartzeak soil-soilik esan nahi du urbanizazio-lanak egitea nahikoa dela eraikinak erabiltzeko. Urbanizazio-lanak onartzeak ez du zerikusirik obrak behin-behinean edo behin betiko hartzearekin.

2. Orubetat hartzen diren partzelen urbanizazioa berritu eta hobetzeko lanak, garrantzi gutxiak badira, ez dira oztopo izango hirigintzako aprobetxamendurako eskubidea eskuratzeko, betiere, ez badira lagapen- edo berdinbanaketa-faktoreak gertatzen.

Kasu honetan, lizentzia eskuratu ahal izateko, aldi berean berritze- edo hobetze-lanak egin beharko dira, lehenengo puntuan, c) idatz-zatian, ezarritakoen antzeko irizpideei jarraiki.

53. artikulua. Jabearen edo sustatzailearen beste betebeharrak.

Jabeak edo obren sustatzaileak honako betebeharrak izan behar dituzte:

a) Abala edo fidantza formalizatzea, ondasun publikoetan eragin daitezkeen kalteak bermatzeko.

b) Udal Administrazioari obrak zuzentzen dituzten teknikarien izenak helaraztea.

c) Obrak egiten diren lekuan, bide publikotik ikusteko moduan, lizentzia eskuratu izana egiaztatzen duen agiria jartzea.

d) Udal Administrazioari jakinarazpena helaraztea, lehenengoz okupatzeko lizentzia eman aurreko ikuskapena egin dezan.

e) Finkaren aurreko aldean espaloia egitea edo lehendik zegoena ordeztzea, 52. artikuluan aipatzen diren aldibereko urbanizazio-betebeharrei kalterik egin gabe.

Artículo 52. Condiciones previas o simultáneas a la licencia de obras: Cesión, Equidistribución y Urbanización.

1. En aquellos terrenos en los que sea necesario cumplir con los deberes de cesión, equidistribución o urbanización, se procederá de la siguiente manera en relación con la licencia de obras:

a) En lo referente a cesión, los terrenos no podrán obtener licencia de construcción hasta el acceso de la Administración a la titularidad de los terrenos, mediante la suscripción de acta de cesión firmada por el titular registral y el representante municipal.

